

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

6/2021 Mozioa, urtarrilaren 21ekoa, Europako Batasuna NPB-ra bideratutako funtsei buruz

Arabako Batzar Nagusi hauetako Nekazaritza VIII. Batzordeak, 2021eko urtarrilaren 21ean egindako bilkuran, honako mozioa onetsi zuen:

6/2021 Mozioa, urtarrilaren 21ekoa, Europako Batasuna NPB-ra bideratutako funtsei buruz.

1. Arabako Batzar Nagusiek instituzio eskudunei eskatzen diete manten ditzatela Europako Batasunak NPBra bideratutako funtsak indarrean den programazio-aldirako, eta berma dezatela sektorearen bideragarritasuna, elikagaien segurtasuna eta ingurumenaren iraunkortasuna. Halaber, eskatzen diete landa-garapenerako neurrietara bideratu ditzatela Next Generation berreskuratze-funtsetatik datozen baliabideak.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote susta dezala parte-hartze prozesu bat Eusko Jaurlaritzarekin, aldundiekin eta nekazaritzaren sektoreko ordezkariekin, Nekazaritza Ministerioarekin lankidetzan arituz, NBPre hurrengo erreformara egokitutako plan estrategiko propio bat diseinatu eta egiteko.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urtarrilaren 21a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA